



Donostiako
Musika Hamabostaldia
Quincena Musical
de San Sebastián

Centro Kursaal Elkargunea
Zurriola 1
20002 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 00 31 70
quincenamusal@donostia.eus
www.quincenamusal.eus

Sarrerak / Entradas

Leihatilak / Taquillas:
Kursaal
Teatro Victoria Eugenia
Antzokia
www.quincenamusal.eus

Informazio gehiago:
Más información:



Datozen kontzertuak / Próximos conciertos:

24/8

20:00
Le Concert des Nations
La Capella Nacional de
Catalunya

Jordi Savall, zuzendaria

27/8

20:30
Orchestre de l'Opéra National
de Paris

Thomas Adès, zuzendaria

28/8

20:00
Gewandhausorchester
Leipzig

Andris Nelsons, zuzendaria

29/8

20:00
Gewandhausorchester
Leipzig
Orfeón Donostiarra

Andris Nelsons, zuzendaria



ETA GAINERAKO AUDIO PLATAFORMATAN ENTZUNGAI
Y EN LAS DEMÁS PLATAFORMAS DE AUDIO



BI AHOTSETAN

Donostiako Musika Hamabostaldiaren
podcasta

Zein doinu du maitasunak? Nola abesten zaio heriotzari? Eta nostalgjari?... Donostiako Musika Hamabostaldiaren podcast sailaren atal bakoitzean, musika klasikoa aitzaki hartuta, horren inspirazio iturri izan diren gai unibertsalei buruz solasean ariko dira **Joseina Etxeberria** kazetaria eta euskal gizartean, eremu jakin batean bere jardunagatik (kultura, kirola...) ezaguna den gonbidatu bat: **Harkaitz Cano**, **Eduarne Pasaban**, **Iñaki Peña**, **Aitziber Garmendia**, **Lide Hernando** eta **Julen Martija**.

Musika klasikoa eta solasaldia uztartuta,
lasai entzun eta gogoeta egiteko saioa.

A DOS VOCES

Un podcast de la Quincena Musical de
San Sebastián

¿Cómo suena el amor? ¿cómo se canta a la muerte? ¿y a la nostalgia?... en cada capítulo del podcast de la Quincena Musical de San Sebastián, el periodista **Joseina Etxeberria** y un invitado que destaca en la sociedad vasca por su actividad en el ámbito de la cultura, del deporte, etc. charlarán sobre los temas universales que han inspirado la música clásica, con ésta como hilo conductor. Participan **Harkaitz Cano**, **Eduarne Pasaban**, **Iñaki Peña**, **Aitziber Garmendia**, **Lide Hernando** y **Julen Martija**.

Música clásica y conversación, para una
escucha reposada.

86

musika
hamabostaldia
quincena
musical

donostia
san Sebastián
abuztua 1-29
agosto 2025

22/8

Orquesta
Nacional
de España



“Nibelungoaren eraztuna” eskala handiko obra da. Wagnerrek mende laurdenaz baino gehiagoz lan egin zuen hartan, 1848 eta 1874 bitartean, hain zuzen ere. Lau drama edo opera epikoz osatutako ziklo bat da, non konpositoreak modu askean gainjar-tzen baititu germaniar mitologiako osagaiak eta irudiak, bereziki “Nibelungoen kantua” eta “Volsungoen saga” eskandinaviarra. Zentzu nazionalista nabarmenarekin, tetra-logia honen historiak jainkoen, heroien eta mota guztietako izaki mitologikoen arteko borrokak kontatzen ditu, mundu osoaren gaineko nagusitasuna ematen duen eraztun magikoaren eponimoa dela eta. Wagnerrek musika eta libretoa, biak, idatzi zituen, eta haren asmoa zen *Gesamtkunstwerk* edo erabateko artelan bat sortzea, non uztar-tuko baitziren arte guztiak neurri monumen-taleko lan batean. Egia esan, musikaren historian ez da halako proiekturik egon; musikagilea eszenatoki eta baldintza akustiko bereziak zituen antzoki baten eraikuntza sustatzera ere iritsi zen, bere obra nagusia taulartzeko. Hiru belaunaldiz baino gehiagoz garatzen den drama hau antzezteko, lau gau behar dira, jarraian, eta hamabost ordu inguru guztira.

Mende bat geroago, laurogeiko hamarka-dan, Ipar Amerikako diskoetxe batek Lorin Maazeli proposatu zion lanaren iraupena konposizio sinfoniko bakar batera murriz-teko. Ondorioz, Wagnerren “Hitzik gabeko eraztuna” maisulana publikoarentzat eskuragarriago egiteko helburuarekin sortu zen, eta, horrela, lau operaren muntaketa garestiaren beharrik gabe programatzeko aukera eman zen. Operen orkestra-suite bakanduak oso ohikoak dira orkestra sinfonikoen errepertorioan, baina kasu zehatz honek –Wagnerren aldeko garbizale batzuek pentsa dezaketena gorabehera– bereziki ondo funtzionatzen du. Wagnerrek operaren generoa irauli zuen, *leitmotivak*, ‘melodia infinitua’ eta errezitatiboen eta arien arteko zatiketa eza baliatuz, eta “Hitzik gabeko eraztuna” lanaren izaera narratiboa eten gabe isurtzen da, jarrai-tutasun dramatikoaren alde eginez. Inork ezin du ukatu, halaber, hain modu bikai-nean idatzitako musika orkestra sinfoniko baten eskutik entzutearen plazer estetikoa; musika hori, edonola ere, testurik gabe ere jarraitzen da, bera bakarrik.

Tomás Vidal *

*Musika Hamabostaldiak bultzatutako *Musika Hitzetan* lankidetzaren proiektuan parte hartu duen Musikeneko ikaslea



David Afkham

22/8
Ostirala / Viernes
20:00

Orquesta Nacional de España

David Afkham zuzendaria

Richard Wagner (1813-1883) /
Lorin Maazel (1930-2014)

EL ANILLO SIN PALABRAS (75’)

EL ORO DEL RIN

I. Preludio. En las profundidades del Rin
II. La entrada de los dioses en el Valhalla
III. Nibelheim. El hogar de los enanos
IV. El martillazo de Donner

LA VALQUIRIA

I. Siegmund y Sieglinde
II. La huida de ambos
III. La furia de Wotan
IV. La cabalgata de las valquirias
V. El adiós de Wotan y música del fuego mágico

SIEGFRIED

I. Mime aterrorizado
II. Siegfried forja la espada mágica
III. Murmullos del bosque
IV. Siegfried mata al dragón Fafner
V. El lamento de Fafner

EL OCASO DE LOS DIOS

I. Amanecer. La pasión de Siegfried y Brünnhilde
II. El viaje de Siegfried por el Rin
III. Hagen convoca a sus hombres con el cuerno de toro
IV. Siegfried y las hijas del Rin
V. Muerte de Siegfried y marcha fúnebre
VI. La inmolación de Brünnhilde

“El anillo del nibelungo” es una obra de extraordinaria escala en la que Wagner trabaja durante más de un cuarto de siglo, entre 1848 y 1874. Consiste en un ciclo de cuatro dramas u óperas épicas en las que el compositor imbrica de manera libre elementos y figuras de la mitología germana, particularmente el “Cantar de los nibelungos” y la escandinava “Saga de los volsungos”. Con un sentido marcadamente nacionalista, la historia de esta tetralogía relata las luchas entre dioses, héroes y todo tipo de criaturas mitológicas acerca del epónimo anillo mágico que otorga dominación sobre el mundo entero. El propósito de Wagner, quien escribió tanto la música como el libreto, era concebir una *Gesamtkunstwerk* u obra de arte total, en la que todas las artes se fusionaran en una obra de dimensiones monumentales. Lo cierto es que no se ha visto en la historia de la música un proyecto de tal magnitud; tanto es así que el compositor llegó incluso a promover la construcción de un teatro con un escenario y unas condiciones acústicas especiales para la puesta en escena de su obra magna. Una representación completa de este drama, que se desarrolla durante más de tres generaciones, requiere cuatro noches seguidas de ópera, con un tiempo total de aproximadamente quince horas.

Más de un siglo después, en los años ochenta, una compañía discográfica norteamericana propuso a Lorin Maazel la posibilidad de reducir la inmensa duración de la obra a una sola composición sinfónica. En consecuencia, “El anillo sin palabras” nace con la intención de hacer más accesible al público la obra maestra de Wagner, permitiendo su programación sin la necesidad del costoso montaje de cuatro óperas. Las suites orquestales entresacadas de óperas son ya muy comunes en el repertorio de las orquestas sinfónicas, pero este caso concreto – pese a lo que algunos wagnerianos puristas puedan pensar – funciona especialmente bien. Wagner revolucionó el género de la ópera con el uso de *leitmotifs*, la ‘melodía infinita’ y la ausencia de compartimentación entre recitativos y arias, y “El anillo sin palabras” permite que el carácter narrativo de la obra fluya sin interrupciones, en pro de la continuidad dramática. Nadie puede negar, asimismo, el placer estético de escuchar, de la mano de una orquesta sinfónica, una música escrita de manera tan genial, música que, en cualquier caso, se sostiene sola sin necesidad de texto.

Tomás Vidal *

*Alumno de Musikene participante en el proyecto de colaboración *Musika Hitzetan* (Música en palabras) promovido por la Quincena Musical